

IRAKASKUNTZA-GIDA

2018/19

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25968 - Komunikazioa Euskaraz: Giza eta Gizarte Zientziak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gizarte Langintzako Graduko 4. mailan eskainitako hautazko irakasgaia, Hautazkotasuna (M05) izeneko moduluan biltzen dena. Euskararen arauak eta erabilera irakasgaiak bezala, Komunikazioa euskaraz irakasgaiak bi ditu helburu nagusiak: batetik, ikasleak lehendik duen hizkuntzaren ezagupena finkatzea eta hobetzea eta, bestetik, etorkizunean bere jardun profesionalan aurki ditzakeen hizkuntza arazo eta beharrei aurre egiteko prestatzea. Ahozkoan, jendaurreko aurkezpenetan eta ahoz gorako irakurketetan zaindu beharreko hainbat alderdi (jarrerazkoak, hizkuntzazkoak eta teknikoak) aztertu eta landuko ditugu. Idatzizkoan, berriz, arloko terminologia zuzen erabiltzeko bitartekoak ikusiko ditugu (hala hitz berriak sortzeko hizkuntza mekanismoak nola eskura diren arloko hiztegiak eta datu-banku terminologikoak) eta, gainera, testu akademiko eta administratiboen idazketa landuko dugu.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUNAK:

- G1. Arloko euskal terminologia ezagutzea eta egokiro erabiltzea;
- G2. Arloko terminologia sortzeko hizkuntza-estrategiak ezagutzea eta zuzen erabiltzea arloko euskal hitz berriak sortzeko;
- G3. Arloan baliagarriak diren euskarazko hizkuntza-baliabideak, hala paperekoak nola digitalak, ezagutzea eta erabiltzea;
- G4. Arloko testuak, bai akademikoak bai lan testuak, zuzen eta egoki antolatzea eta idaztea;
- G5. Arloko gai ezaguetan egokiro jardutea, bai ahoz gora irakurtzean bai aurkezpenak egitean.

IKASKETA EMAITZAK:

- IE1. Arloko euskal terminologia ezagutzen du eta egokiro erabiltzen du;
- IE2. Arloko terminologia sortzeko hizkuntza-estrategiak ezagutzen eta bereizten ditu, eta zuzen erabiltzen ditu arloko euskal hitz berriak sortzeko;
- IE3. Arloan baliagarriak diren euskarazko hizkuntza-baliabideak, hala paperekoak nola digitalak, ezagutzen eta erabiltzen ditu;
- IE4. Arloko testuak, bai akademikoak bai lan testuak, ezagutzen eta haien ezaugarriak identifikatzen ditu;
- IE5. Arloko artikulak akademikoak zuzen eta egoki antolatzen eta idazten ditu;
- IE6. Arloko gaien inguruko ahozko jarduna, dela ahoz gorako irakurketa dela ahozko aurkezpena, helburu komunikatiboaren eta baldintzen arabera planifikatzen eta aurkezten ditu, betiere erregitro estandarra erabiliz, hitzezko (entonazioa, bolumena, erritmoa eta etenak) eta hitzik gabeko (keinua, jarrerak, mugimenduak) komunikazioa zainduz eta bitarteko egokiak baliatuz.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Hiztegia eta terminologia
 - 1.1. Hitzak eta terminoak
 - 1.2. Hitz berriak sortzeko hizkuntza-mekanismoak eta irizpide orokorrak
 - 1.3. Giza eta gizarte-zientzietako hiztegiak eta datu-base terminologikoak
2. Artikulu akademikoaren idazketa
 - 2.1. Testu akademikoak: ezaugarriak eta motak
 - 2.2. Artikulu akademikoaren idazketaz
 - 2.2.1. Artikulu-atalak
 - 2.2.2. Koherentziak eta kohesioak
 - 2.2.3. Testuko ahotsen kudeaketa: testugileak eta iturriak
 - 2.2.4. Testuaren itxuratzea: edizioa
3. Jendaurreko ahozko jardun akademikoak
 - 3.1. Ahoz gorako irakurketa
 - 3.2. Ahozko aurkezpen akademikoak (hizlarien dohainak eta bitartekoaren erabilera)

METODOLOGIA

A) Eskolaz kanpokoak

- Gaiak ikastea.
- Bibliografia irakurtzea eta lantzea.
- Alderdi gramatikalak zuzentzen laguntzeko baliabideak eskuratzea.
- Idatzizko azalpen testuak lantzea.

- Testuen edizioa lantzea.
- Jendurreko ahozko azalpena genero gisa lantzea, berau laguntzeko euskarriak berariaz aztertuz eta komunikazio eta hizkuntzazko baliabideetan berariaz sakonduz.
- Ahoz gorako irakurketak prestatzea.

B) Eskolan bertan

- Eskola magistraletan ikasgaien proposatzen diren edukiak lantzea.
- Ikasgelako praktiketan idazketa garatzea nahiz jendurreko azalpena garatzeko ariketak egitea, ahoz gora irakurketak burutzea, e.a.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Minteoria GA: Gelako p. GL: Laboratediko p. GO: Ordenaailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Banakako lanak % 40
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 30
- Ahoz gorako irakurketa % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleak bi ebaluatze-sistema izango ditu aukeran: ebaluazio jarraia eta azken azterketa.

A. Azken ebaluazioa (%100), azterketa bakarrean oinarrituko dena eta Dekanotzak ezarritako datan izango dena. Azterketak honako atalak edukiko ditu:

- IDATZIZKOA (galdera teorikoak eta praktikoak) (% 60)
- AHOZKOA: 1'30"-ko ahoz gorako irakurketa (% 10) eta irakasleak emandako testu baten 7-8 minutuko ahozko bakarkako aurkezpena, PWP batez edo antzeko baliabideren batez lagundu beharko dena (% 30, ahozko jarduna zein baliabidea ebaluatuko dituen).

B. Ebaluazio jarraia. Azken nota honakoetan oinarrituko da:

- IDATZIZKOA: azterketa (%20) eta idazlana (% 40)
- AHOZKOA: ahoz gorako irakurketa (% 10) eta idazlanaren banakako edo taldekako ahozko aurkezpena, azterketakoan bezala PWP batez edo antzeko baliabideren batez lagundu beharko dena (% 30, ahozko jarduna zein baliabidea ebaluatuko dituen).

Ebaluazio-sistema batean zein bestean 5etik gorakoak izan beharko dira bi atalen batez bestekoak, bai idatzizkoarena bai ahozkoarena. Atalen bat gainditu ezean, horren nota agertuko da aktetan, ez baita notarako jarduera guztien batez bestekoa kalkulatu.

- Ebaluazio sistema batetik bestera aldatzea: Ikasleek lehen bederatzi astean epearen barruan izango dute ebaluazio-sistema batetik bestera aldatzeko aukera. Aldatu nahia idatziz adierazi beharko zaio irakasleari.

- Deialdiari uko egitea:

Azken azterketa egin behar duten ikasleek nahikoa izango dute proba egunean ez agertzea deialdiari uko egiteko. Ebaluazio jarraioek, berriz, lauhilekoaren erdialdera egingo den idatzizko probako nota ezagutu aurretik adierazi beharko diote idatziz irakasleari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistema batean zein bestean, ikasleak aukeran izango du atal guztiak berriro egin edo gainditu ez dituen atalak bakarrik errekuperatu; nolahi ere, idatziz eta azterketa-data baino astebete lehenago adierazi beharko dio hautua irakasleari.

Ohiko deialdian bezala, 5etik gorakoak izan beharko dira ahozko eta idatzizko atalen batez bestekok. Atalen bat gainditu ezean, horren nota agertuko da aktetan, ez baita notarako jarduera guztien batez bestekoa kalkulatu.

Hala nahi izanez gero, ikasleak ebaluazio sistema batetik bestera aldatzeko aukera izango du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Eskolako apunteak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Testuak:

LOZANO, J. (Koord.) (1997). Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. IVAP-HAEE: Donostia.

[http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin_hizkera/eu_3810/argiro0_e.html]

VÁZQUEZ, G. (2001). Guía didáctica del discurso académico escrito. ¿Cómo se escribe una monografía?. Edinumen: Madril.

- Gramatika eta estiloa

ALBERDI, X. eta I. SARASOLA (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua: Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (1992-2012). Euskaltzaindiaren arauak. [<http://www.euskaltzaindia.net/arauak>]

IVAP-HAEE (2005). IVAPeko estilo-liburua. IVAP-HAEE: Donostia.

ZABALA, I. (Koord.) (1996). Testu-loturarako baliabideak: Euskara Teknikoa. EHUren Argitalpen Zerbitzua: Bilbo.

ZUBIMENDI, J.R. (2004). Ortotipografia. Vitoria-Gasteiz: EJren Argitalpen Zerbitzua.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html]

ZUBIRI, I. eta E. ZUBIRI (1995). Euskal Gramatika Osoa. Didaktiker: Bilbo.

- Terminologia:

SARASOLA, I. 1997. Euskara Batuaren Ajeak. Donostia: Alberdania.

ZABALA, I. 2000a. Zehaztasuna eta gardentasuna. In J.C. Odriozola (koord.), Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua. 159-189.

ZALBIDE, M. 1982. Hitz-eraketa: lexiko-sorkuntzarako baliabideak. In UZEI, Hizkuntzalaritza Hiztegia. Donostia: Elkar.

- Ahozko jarduna:

DIAZ DE GEREÑU, L. (2002), Ahoz gora irakurtzea 2Hren irakaskuntzan. In Helduen Euskalduntzearen IV. Jardunaldiak. Udako Euskal Unibertsitatea: Bilbo.

GARZIA, J. (2008). Jendaurrean hizlari. Alberdania: Irun.

GARCÍA AZKOAGA, I. (2007), Ahozko azalpena unibertsitatean: ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago. In I. Idiazabal & Garcia, I. (arg.), (2007), Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza. Bilbo: EHU. 176-194. [Sare-argitalpena: www.testubiltegia.ehu.es]

POLITO, R.. (2004). Cómo hablar bien en público. EDAF: Madril.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Testu akademikoak:

CLANCHY, J. & B. BALLARD (1992). Cómo se hace un trabajo académico. Guía práctica para estudiantes universitarios. Prensas Univ. de Zaragoza: Zaragoza.

CREME, PH. & M.R. LEA (2000). Escribir en la universidad. Gedisa: Barcelona.

- Gramatika eta estiloa

EUSKALTZAINDIA (2002). Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna. Euskaltzaindia: Bilbo.

GARZIA, J. (2005). Kalko okerrak. EJren Argitalpen Zerbitzua: EJren Argitalpen Zerbitzua.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (ed.) (1998), Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak.

Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza. Vitoria-Gasteiz: EHU/UPV eta Arabako Foru Aldundia.

ZUBIMENDI, J. R. eta ESNAL, P., 1993, Idazkera-liburua. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- Terminologia:

AMURIZA, X. 1974. Euskal aurrizkiak, in Euskera.

ENSUNZA, M., J.R. Etxebarria eta J. Iturbe. 2002. Zientzia eta Teknikarako euskara: zenbait hizkuntza-baliabide. Bilbo: UEU.

EUSKALTZAINDIA. 1986. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA. 1992. Hitz-elkarketa 4. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia. 1994. Eratorpenaz, Euskera 39, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko Agiriak, 1039-1058.

UZEI. 1982. Maileguzko hitzak. Ebakera eta idazkera. Donostia: UZEI.

UZEI. 1988. Laburtzapenen Gidaliburua. Donostia: UZEI.

ZABALA, I. 1994. Laburtzapenen deklinabidea, Euskera 39.2: 735-742.

- Ahozko jarduna:

ALEGRÍA, A., DIAZ DE GEREÑU, L. eta I. MANTEROLA (2008). Ahozko komunikazioa. Ahozko diskurtsoa arautzen duten osagaiak eta arauak. Ahozko komunikazioari dagozkion estrategiak. In I. García & K. Bujan (arg.), Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Euskara eta Literatura. Gai hautatuak. MAD: Sevilla.

DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B. (1998). Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux formels à l'école. ESF Editeur: Issy-

les-Moulineaux. [2.,6. eta 8. atalak].

IDIAZABAL, I. & GARCÍA, I. (ed.), (2007), Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza. Bilbo: EHU/UPV.

Aldizkariak

Zerbitzuan

Interneteko helbide interesgarriak

ARTEZ euskara zerbitzua: <http://www.hiztegia.net/>

EHUKO EUSKARA ZERBITZUA, EHULKU: <http://www.ehu.es/ehulku/>

EHUko Euskararen institutua: http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html

EHUko Euskararen Errektoreordetzako kontsultagunea. [http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/indice_centro_consulta/eu_indice/centro_consulta.html] (Ehulku, Azpidazki, Ehutsi, etab.)

EHUko Euskararen institutua: http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_sarrera/eu_sarrera/sarrera.html

ELHUYAR ETA EHUKO EUSKARA ZERBITZUA, AZPIDAZKI: <http://www.ehu.es/azpidazki/>

EUSKALJAKINTZA. <http://www.euskaljakintza.com/> (arauak, ariketak, etab.)

EUSKALTZAINDIA. www.euskaltzaindia.net (arauak, Hiztegi Batua, Jagonet, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-VI [EGLU I-VI].…)

EUSKO JAURLARITZA. [<http://www.euskara.euskadi.net/r59-734/eu/>]

IVAP-HAEE (2000). Zalantza-dantza. <http://www.ivap.org/admeusk/ae29z.pdf>

OHARRAK